

## I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa  
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Batzar Nagusiak / Juntas Generales

**3/2015 FORU ARAUA**, martxoaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zenbait Foru Arau aldatzen dituena.

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2015eko martxoaren 2ko Osoko Bilkuran onartu dutela 3/2015 Foru Araua, martxoaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zenbait Foru Arau aldatzen dituena, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

Bilbon, 2015eko martxoaren 3an.

Bizkaiko Ahalduen Nagusia  
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

HITZAURREA

Foru arau honek Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistemako zortzi zerga hauei dagozkien aldaketak ditu: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Aseguru Primen gaineko Zerga, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Ekonomi Jardueren gaineko Zerga. Aldaketak 8 artikulutan egituratu dira eta artikuluko bakoitzean sartu dira zerga bakoitzari dagozkion aldaketak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, foru arau honetan araututako lehen gaia da eta aldaketa hauek nabarmendu behar dira.

Doikuntzak egin dira 19. artikuluko 2. zenbakian, argitzeko aseguru kolektiboaren kontratuengatik kapital moduan jasotako prestazioetatik datozen etekinei nola aplikatu behar zaien etekin irregularretarako ezarritako 300.000 euroko muga.

Gizarte Segurantzako sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko 2011ko abuztuaren 1eko 27/2011 Legeko berrogeita seigarren xedapen gehigarriak sartutako aldaketarekin bat, Norberaren Konturako Langile edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian sartu gabeko profesionalen gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin sinatutako aseguru-kontratuengatik ordaindutako diru-kopuruen kengarritasuna berrikusi da. Kengarritasun hori 27. artikuluko 1. erregelari dago jasota, eta araubide berezi horretan kontingentzia arruntak direla eta ekitaldi ekonomiko bakoitzerako ezarritako gehieneko kuotaren %50era mugatu da.

Ondare-irabazi eta galerei dagokienez, prozedura judicial baten barruan ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik lortutako ondare-irabaziei aitortutako salbuespena berrikusi da. Batetik, zordunak eta zordunaren berme-emaileak ohiko etxebizitza ordainean emateko aukera jaso da. Eta, bestetik, doikuntzak egin dira jokoak eragindako ondare-galera konputaezinen tratamenduan, eta, ondorioz, konputaezintzat hartuko dira zergaldi berean jokoan lortutako irabazien gaineratik daudenak. Horrez gainera, lan-sozietateen ezauzgarri bereziak kontuan hartuta, sozietate horien akzioen edo partaidetzen eskualdaketa-balioa zehazteko tratamendu berezi bat ezarri da, eta balio hori sozietatearen kontratuaren, kontratu sozialetan edo sozietatearekiko kontratuaren jasotakoa izango dela finkatu da, betiere kontratuaren ezarritako prezioetan egiten bada eskualdaketa.

**NORMA FORAL 3/2015**, de 2 de marzo, de modificación de diversas Normas Forales en materia tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

Hago saber que las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado en Sesión Plenaria de fecha 2 de marzo de 2015, y yo promulgo y ordeno la publicación de la Norma Foral 3/2015, de 2 de marzo, de modificación de diversas Normas Forales en materia tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, a los efectos que todos los ciudadanos, particulares y autoridades, a quienes sea de aplicación, la guarden y la hagan guardar.

En Bilbao, a 3 de marzo de 2015.

El Diputado General de Bizkaia,  
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

PRÉAMBULO

La presente Norma Foral contiene modificaciones tributarias en el ámbito de ocho impuestos del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia: Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades, Impuesto sobre la Renta de No Residentes, Impuesto sobre el Patrimonio, Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, Impuesto sobre las Primas de Seguros, Impuesto sobre Bienes Inmuebles e Impuesto sobre Actividades Económicas, estructurándose en ocho artículos que acogen las modificaciones de las figuras impositivas citadas.

En lo que se refiere al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, primera de las materias reguladas en esta Norma Foral, cabe destacar las siguientes modificaciones.

Se realizan ajustes en el apartado 2 del artículo 19, al objeto de clarificar la aplicación del límite de 300.000 euros establecido para los rendimientos irregulares, a los rendimientos derivados de prestaciones percibidas en forma de capital de contratos de seguros colectivos.

En concordancia con la modificación introducida por la Disposición adicional cuadragésima sexta de la Ley 27/2011, de 1 de agosto, sobre actualización, adecuación y modernización del sistema de Seguridad Social, se revisa la deducibilidad de las cantidades abonadas en virtud de contratos de seguro concertados con mutualidades de previsión social por profesionales no integrados en el régimen especial de la Seguridad Social de los trabajadores por cuenta propia o autónomos, contenida en la regla 1 del artículo 27, limitándose la misma al 50 por 100 de la cuota máxima que por contingencias comunes esté establecida en cada ejercicio económico en el citado régimen especial.

En materia de ganancias y pérdidas patrimoniales, por un lado, se revisa la exención reconocida a las ganancias patrimoniales derivadas de la transmisión de la vivienda habitual en el curso de un procedimiento judicial, incorporando el supuesto de dación en pago de la vivienda habitual del deudor y del garante del deudor y por otro, se ajusta el tratamiento de las pérdidas patrimoniales no computables debidas al juego considerándose las mismas siempre que excedan de las ganancias también obtenidas en el juego en el mismo periodo impositivo. Adicionalmente, teniendo en cuenta las características especiales de las Sociedades Laborales, se establece un tratamiento específico para la determinación del valor de transmisión de las acciones o participaciones de este tipo de sociedades, fijándose el mismo en aquél que aparezca en los contratos de sociedad, contratos sociales o con la sociedad y siempre que la transmisión se realice efectivamente a los precios en ellos estipulados.

Irabazitakoa berriro inbertitzeagatik salbuesteko zerga-onura aplikatzeko aukera sartu da zergadunaren ohiko etxebizitza zen etxebizitza familiarra eskualdatzearen ondorioz lortutako ondare-irabazietarako, baldin eta zergadunak etxebizitza horretan bizitzeari, betiere eskualdatzen den etxebizitza familiarra zergadunaren ezkontide edo izatezko bikotekide izandakoaren eta/edo zergari buruzko foru arauko 79. artikuluan jasotako kenkarirako eskubidea eragiten duten haien arteko ondorengoan ohiko etxebizitza bada.

Murrizketei dagokienez, 71. artikuluko 3. zenbakian eta hamazortzigarren xedapen iragankorrean zehazten da, ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen alde zergadunak gizarte-aurreikuspeneko sistemetan egiten dituen ekarpenen kasuan, ekarpenak murriztea eragozten duen erretiro egoera bazkide, partaide, mutualista edo titularra den ezkontidearena edo izatezko bikotekidearena dela.

Ohiko etxebizitzagatik egin ahal diren kenkariei dagokienez, epailearen erabakiz etxebizitza familiarraren alokairua edo erosketa dela-eta zenbateren bat ordaindu behar den kasurako, hain zuzen ere, zalantzak sortu dira foru araua interpretatzeko, aplikatu beharreko portzentajeari eta mugari dela eta; hortaz, idatzketa argitzen da eta ezartzen da portzentaje eta muga orokorrak aplikatu behar direla, oro har, zergadunak adinaren eta familia ugariaren baldintzak betetzen dituen izan ezik. Izan ere, kasu horretan, portzentaje eta muga handiagoak aplikatu ahal izango dira.

88. artikuluko 1. zenbakian, berriz, araudian dagoeneko jasota dagoen aukera hau erantsi da: jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarrian jasota dauden kultura sustatzeko pizgarriak aplikatu ahal izango dituzte.

Negoziatzeko onartuta dauden baloreen ondoriozko ondare-irabazientzako aukerako tributazio-araubideari dagokionez (foru arauko hogeita laugarren xedapen gehigarrian arautu da), berariaz ezarri da araubide hori ez zaiela aplikatuko balio horietatik datozen harpidetza-eskubideen eskualdatzei.

Zergaren arautegia Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen Testu Bateginean sartutako aldaketen arabera egokitu da. Izan ere, pentsio-planetako eskubide kontsolidatuak itzultzeko aukera jaso da partaidearen ohiko etxebizitzaren gaineko exekuzio-prozeduran. Aukera hori arautzeko, hogeita bosgarren xedapen gehigarria erantsi da.

PFEZari dagokion azken neurri garrantzitsua da Europako Batzordeak arrantza-ontziei zerga-pizgarriak ematea baimentzen duela, Europar Batasuneko uretatik kanpo lan egiten badute eta tunidoak edo antzeko espezieak baino arrantzatzen ez badituzte, arrantza eta akuikulturaren arloan Estatuak ematen dituen laguntzak aztertze zuzentzat (2008/C 84/06) ezarritakoaren arabera.

Zuzentzarako horiekin bat, haietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten arrantza-ontzietako tripulatuak beren ezarpen pertsonalean salbuesita izango dute itsasontzi horietan nabigatzearen ondorioz lortzen dituzten lan-etekin %50. Zerga-pizgarri hau sartzearen ondorioz, informazio hau eman behar zaio Batzordeari: pizgarri horiek ezartzen ez badira itsasontziek arrantza-ontzien erregistro nazionalen baja eskatzeko benetako arriskua dagoela frogatzen duena. Izan ere, aurreko baldintza hori ezinbestekoa zerga-pizgarri hau Zuzenbide komunitarioarekin bateraezina den Estatuaren laguntza izan ez dadin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu. Salbuespen hau benetan aplikatu ahal izateko baldintza hau bete behar da: bateragarria izan behar du Europar Batasuneko ordenamenduekin.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren arloan, Enpresen zorra birfinantzatzeko eta berregituratzeko premiazko neurriak hartzen dituen 2014ko irailaren 30eko 17/2014 Legeak eta martxoaren 7ko 4/2014 Errege Lege Dekretuak hau ezarri zuten lurralde erkideko arautegiaren barruan: Konkurtso Legea ezarritako birfinantzatze-akordioetan edo gastuak

Se introduce una nueva previsión que permite la aplicación del beneficio fiscal de la exención por reinversión para el supuesto de ganancias patrimoniales obtenidas por la transmisión de la vivienda familiar que hubiera tenido para el contribuyente la consideración de vivienda habitual, cuando éste hubiera dejado de residir en la misma por decisión judicial en un procedimiento de separación matrimonial o extinción de la pareja de hecho y siempre que la vivienda familiar objeto de transmisión constituya la vivienda habitual del ex cónyuge o pareja de hecho y/o de los descendientes comunes que den derecho a la deducción del artículo 79 de la Norma Foral del impuesto.

En el ámbito de las reducciones, se especifica tanto en el apartado 3 del artículo 71 como en la disposición transitoria decimocava, que en el supuesto de aportaciones a sistemas de previsión social a favor del cónyuge o pareja de hecho, la situación de jubilación que impide la reducción de las aportaciones es la que corresponde al cónyuge o pareja de hecho que ostenta la condición de socio, partícipe, mutualista o titular.

En referencia a las deducciones en vivienda habitual, en los supuestos en que por decisión judicial haya que satisfacer cantidades por el alquiler o adquisición de la vivienda familiar, de la redacción de la norma foral se han suscitado dudas interpretativas en cuanto al porcentaje y límite que deben aplicarse, por lo que se clarifica la redacción, estableciendo con carácter general la aplicación de los porcentajes y límites generales salvo cuando concurren en el contribuyente los requisitos de edad y familia numerosa, supuesto en que podrán aplicarse los porcentajes y límites incrementados.

En el apartado 1 del artículo 88 se añade la posibilidad, ya recogida reglamentariamente, de que los contribuyentes que ejerzan actividades económicas apliquen los incentivos para el fomento de la cultura dispuestos en la disposición adicional decimoquinta de la Norma Foral de Impuesto sobre Sociedades.

En relación al régimen opcional de ganancias patrimoniales derivadas de valores admitidos a negociación regulado en la disposición adicional vigesimocuarta de la Norma Foral, se excluye expresamente de la aplicación del mismo a las transmisiones de derechos de suscripción de los valores mencionados.

Se acompaña la normativa del impuesto a las modificaciones introducidas en el Texto Refundido de la Ley de regulación de los Planes y Fondos de Pensiones, en referencia a la posibilidad de reembolso de los derechos consolidados en planes de pensiones en los supuestos de procedimientos de ejecución sobre la vivienda habitual del partícipe, añadiendo una nueva Disposición Adicional Vigésimoquinta que lo regula.

Como última medida relevante en el IRPF, destacamos que la Comisión Europea permite conceder determinados incentivos fiscales a los buques, siempre que faenen fuera de las aguas de la Unión Europea y pesquen exclusivamente túnidos o especies afines, en los términos previstos en las Directrices para el examen de las ayudas estatales en el sector de la pesca y la acuicultura (2008/C 84/06).

De acuerdo con las referidas Directrices, se establece que los tripulantes de los buques, que cumplan los requisitos exigidos por las mismas tendrán, exento en su imposición personal el 50 por ciento de los rendimientos del trabajo devengados durante la navegación en los mismos. La introducción de este incentivo fiscal exige que se suministre a la Comisión información que demuestre el riesgo real de que los buques solicitarían su baja en el registro nacional de buques pesqueros si no se estableciesen tales incentivos, requisito imprescindible para que el presente incentivo fiscal no constituya una ayuda de Estado incompatible con el Derecho comunitario, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea. La aplicación efectiva de esta exención quedará condicionada a su compatibilidad con el ordenamiento comunitario.

En el ámbito del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, la Ley 17/2014, de 30 de septiembre, por la que se adoptan medidas en materia de refinanciación y reestructuración de la deuda empresarial, y el Real Decreto-ley 4/2014, de 7 de marzo, establecieron, en el ámbito normativo del territorio común, la exención del tributo para las escri-

ordaintzeko epaiketarik kanpoko akordioetan jasotako kitak edo gutxitzeak edo zordunaren bestelako betebeharrak dituzten eskriturak zerga ordaintzetik salbuetsita egongo direla. Aurreikuspen honek enpresei dagokienez duen interes ekonomikoa aintzat hartuta eta egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, beharrezkotzat jo da neurri hori gure Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan sartzea, gure zergen arloan antzeko salbuespen bat jasotzeko.

Aseguru Primen gaineko Zergari dagokionez, ikusi da Bizkaiko Lurralde Historikoan zerbitzuak libre emateko araubidean jardun baina egoitza Espainia ez den Europako esparru ekonomikoa beste estatu kide batean duten aseguru-entitateek egoitza Bizkaian zuen zerga-ordezkarri bakarra izendatzen zutela. Zerga-betebeharrak betetzea errazteko, aukera zabaldu da eta, beraz, zerga-ordezkaririk Espainiako estatuko edozein lekutan izan dezake egoitza.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko azaroaren 17ko 2003/98/EE Zuzentarauak (Sektore Publikoko Informazioa Berrehabiltzeari buruzkoa) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko martxoaren 14ko 2007/2/EE Zuzentarauak (Europako Erki-degoan espazio-informaziorako azpiegitura bat ezartzen du) nabarmentzen dute Higiezinaren Katastroak zergen eremuko ez den profila duela eta lurralde-informaziorako tresna garrantzitsua dela. Zuzentaru horiek agerian uzten dute berariaz arautu beharra dagoela katastroko datuetara sartzeko aukera, sartzeko hori Europako printzipio eta arau horien arabera egin dadin, baina zergen arloko datuetara sartzeko dituen mugak alde batera utzita. Muga horiek, gure kasuan, Zergei buruzko 2005eko martxoaren 30eko 2/2005 Foru Arau Orokorak ezartzen ditu.

Ildo horretan, hainbat doikuntza egin dira Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan, higiezinaren eroldan Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko orriaren bitartez sartzeko egon daitezkeen tresnak modernizatzeko, baina Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoa beteta beti.

Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ildo beretik eta Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoarekin bat, zerga horretarako ezarritako kautela berberak sartu dira, matrikulari dagokionez.

Azkenik, zenbait akats zuzendu dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko artikuluetan nahiz Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko foru arauetako artikuluetan; hain zuzen ere, terminologia-akatsak, argitalpenekoak eta hainbat legeri buruzko aipamenetan zeuden akatsak zuzendu dira.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betetzeko, memoria ekonomikoa buruzko txostena eta genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

### **1. artikulua. — 13/2013 Foru Araua, abenduaren 5koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa**

Honako aldaketa hauek egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauan:

*Bat:* Kendu egiten da 19. artikuluko 2. zenbakiko b) letrako azken paragrafoa, eta artikuluko 2. zenbakiariko azken paragrafoa gehitzen zaio; hau da haren edukia:

«Zenbaki honetako b) eta c) letretan aipatzen diren etekinei %100etik beherako integrazio-portzentajeak aplikatuko bazaizkie ere, etekinon zenbatekoa ezin da 300.000 euro baino handiagoa izan urtean. Zenbateko horretatik gorako soberakina %100ean integratuko da.»

turas que contengan quitas o minoraciones u otras obligaciones del deudor que se incluyan en los acuerdos de refinanciación o en los acuerdos extrajudiciales de pago establecidos en la Ley Concursal, siempre que en todos los casos, el sujeto pasivo sea el deudor. En función del interés económico que encierra esta previsión a nivel empresarial, dada la actual coyuntura económica de crisis, se considera necesario incorporar esta medida a nuestra Norma Foral del Impuesto de Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados de forma que ésta contemple una exención semejante en nuestro ámbito tributario.

En cuanto al Impuesto sobre las Primas de Seguro se venía detectando la práctica, por parte de aquellas entidades aseguradoras establecidas en otro Estado miembro del espacio económico europeo, distinto de España, pero que actúan en el Territorio Histórico de Bizkaia en régimen de libre prestación de servicios, del nombramiento de un único representante fiscal con domicilio en Bizkaia. A fin de facilitar el cumplimiento de las obligaciones tributarias, se amplía la opción a que el representante fiscal pueda tener domicilio en cualquier parte del Estado español.

En relación al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, la Directiva 2003/98/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de noviembre de 2003, relativa a la Reutilización de Información del Sector Público y la Directiva 2007/2/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de marzo de 2007, por la que se establece una Infraestructura de información espacial en la Comunidad Europea, inciden en el perfil no tributario del Catastro Inmobiliario y en su configuración como una gran herramienta de información territorial. Estas Directivas ponen de manifiesto la necesidad de regular específicamente el acceso a los datos catastrales, de forma que dicho acceso se realice en consonancia con los principios y normas comunitarias referidas pero sin las limitaciones propias del acceso a los datos estrictamente tributarios que establece, en nuestro caso, la Norma Foral 2/2005, de 30 de marzo, General Tributaria.

En esta línea se efectúan algunos ajustes en la Norma Foral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles que propician una modernización respecto a las posibles herramientas de acceso al padrón de inmuebles, a través de la página de internet de la Diputación Foral de Bizkaia, pero respetando en cualquier caso lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal.

En lo que respecta al Impuesto sobre Actividades Económicas, en la misma línea que el Impuesto sobre Bienes Inmuebles y en consonancia con la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal, se introducen las mismas cautelas que las observadas para dicho impuesto, en relación con la matrícula.

Finalmente, tanto en el articulado de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, como en algunos artículos de las Normas Forales del Impuesto sobre Sociedades, Impuesto sobre la Renta de No Residentes e Impuesto sobre el Patrimonio se subsanan errores terminológicos, de publicación y de referencia a diversas legislaciones.

En cumplimiento de lo dispuesto en los apartados 1 y 3 del artículo 55 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia, acompañan a la presente Norma Foral el informe de memoria económica, así como el informe de evaluación de impacto de género.

### **Artículo 1. — Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas**

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

*Uno:* Se suprime el último párrafo de la letra b) del apartado 2 del artículo 19 y se añade un último párrafo al apartado 2 de dicho artículo, con el siguiente contenido:

«La cuantía de los rendimientos a que se refieren las letras b) y c) de este apartado sobre los que se aplicarán los porcentajes de integración inferiores al 100 por 100 no podrá superar el importe de 300.000 euros anuales. El exceso sobre el citado importe se integrará al 100 por 100.»

*Bi:* Berridatzi egiten da 23. artikuluko 3. zenbakia, eta honela geratzen da:

«3. Aurreko zenbakietan aipatzen diren hobariak gehitu egingo dira kasu hauetan:

a) %100; desgaitasun-gradua %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa duten langile aktibo desgaituentzat.

b) %250; desgaitasun-gradua %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa duten langile aktibo desgaituentzat, baldin eta mugikortasun mugatuko egoeran badaude. Kasu honetan ulertuko da langile batek mugikortasun mugatua duela: 1999ko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskinean jasotzen den baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta dagoenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituenean (errege-dekretu horrek baliaezintasun-gradua aitortu, deklaratu eta sailkatzeko prozedura finkatzen du). Orobat, %65eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua duten langile aktibo desgaituentzat ere %250 gehituko da hobaria.»

*Hiru:* Berridatzi egiten da 26. artikuluko 4. zenbakiko lehenengo paragrafoa, eta honela geratzen da:

«4. Zergadunak ondare-elementuak afektatzea edo aktibo ez-korronteak desafektatzea ez du ondare-aldaketarik ekarriko, betiere ondasun-eskubideok haren ondarearen parte izaten jarraitzen badute.»

*Lau:* Berridatzi egiten da 27. artikuluko 1. erregelak, eta honela geratzen da:

«1. Ez dira gastu kengarrizat joko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 31. artikuluko 4. zenbakian aipatutako kontzeptuak, ez eta enpresaburuak edo profesionalak berak gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak ere, foru arau honetako 70. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Hala ere, Norberaren Konturako Langile edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian sartu gabeko profesionalak diru-kopuruak ordaintzen dituztenean gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin sinatutako aseguru-kontratuengatik, ordaindutako kopuru horiek gastu kengarrizat joko dira, araubide berezi horrek estaltzen dituen kontingentziak estaltzeko den zatian, baldin eta, 1995eko azaroaren 8ko 30/1995 Legeko (Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Ikuskapenari buruzko legeko) hamabosgarren xedapen gehigarrian jasotzen den obligazioa betetzeko, mutualitate horiek Gizarte Segurantzako araubide berezi horren ordeztaritzen badira. Halako zenbaterako muga hau izango da: araubide berezi horretan kontingentzia arruntak direla-eta ekitaldi ekonomiko bakoitzeko ezarritako gehieneko kuotaren ehuneko 50.»

*Bost:* Berridatzi egiten dira 28. artikuluko 1. zenbakiko a) eta b) letrak, eta honela geratzen dira:

«a) Lehendabizi, sarrerak eta gastuak kalifikatu eta kuantifikatuko dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta aurreko artikuluko erregeletan xedatutakoaren arabera. Kanpoan utziko dira, baina, narriaduragatik galerak, amortizazioak, foru arau honetako 27. artikuluko 5. erregelako 3. zenbakiko a) letran jasotzen diren errentamendu, lagapen eta balio galeren gastuak, eta jarduerari afektatutako ondare-elementuetatik eratorritako irabazi eta galerak.

b) Goiko letran aipaturiko diru-sarrera eta gastuen arteko aldea kalkulatu, eta eragiketa horren emaitza %10 gutxituko da, amortizazioak, narriaduragatik galerak eta justifikatzeko gaitzak diren gastuak direla eta.»

*Sei:* Berridatzi egiten da 42. artikuluko e) letra, eta honela geratzen da:

«e) Zordunak edo zordunaren berme-emaileak ordainean ohiko etxebizitza ematen duenean etxebizitzaren gaineko hipotekarekin bermatutako zorrak ordaintzeko, betiere kreditu-entitateekin edo modu profesionalen maileguak edo hipoteka-kredituak ematen dituen beste edozein entitatearekin baditu zor horiek.

Horrez gainera, salbuetsita geratuko dira etxebizitza eskualdatzearen ondorioz agerian geratzen diren ondare-irabaziak, baldin eta eskualdatze horretan aurreko baldintzak betetzen badira eta eskualdatzea betearazpen hipotekario, judicial edo notarialen ondorioa bada.

*Dos:* Se da nueva redacción al apartado 3 del artículo 23, que queda redactado en los siguientes términos:

«3. Las bonificaciones contempladas en los apartados anteriores se incrementarán:

a) En un 100 por 100 para aquellos trabajadores activos discapacitados con un grado de discapacidad igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100.

b) En un 250 por 100 para aquellos trabajadores activos discapacitados con un grado de discapacidad igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100, que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tal que se encuentren incluidos en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B ó C del baremo que figura como Anexo II del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad o que obtengan 7 ó más puntos en las letras D, E, F, G ó H del citado baremo, así como para aquellos trabajadores activos discapacitados con un grado de discapacidad igual o superior al 65 por 100.»

*Tres:* Se da nueva redacción al primer párrafo del apartado 4 del artículo 26, que queda redactado en los siguientes términos:

«4. La afectación de elementos patrimoniales o la desafectación de activos no corrientes por el contribuyente no constituirá alteración patrimonial, siempre que los bienes o derechos continúen formando parte de su patrimonio.»

*Cuatro:* Se da nueva redacción a la regla 1 del artículo 27, que queda redactada en los siguientes términos:

«1. No tendrán la consideración de gasto deducible los conceptos a que se refiere el apartado 4 del artículo 31 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, ni las aportaciones a mutualidades de previsión social del propio empresario o profesional, sin perjuicio de lo previsto en el artículo 70 de esta Norma Foral.

No obstante, tendrán la consideración de gasto deducible las cantidades abonadas en virtud de contratos de seguro concertados con mutualidades de previsión social por profesionales no integrados en el régimen especial de la Seguridad Social de los trabajadores por cuenta propia o autónomos, cuando a efectos de dar cumplimiento a la obligación prevista en la disposición adicional decimoquinta de la Ley 30/1995, de 8 de noviembre, de Ordenación y Supervisión de los Seguros Privados, actúen como alternativas al régimen especial de la Seguridad Social mencionado, en la parte que tenga por objeto la cobertura de contingencias atendidas por dicho régimen especial, con el límite del 50 por ciento de la cuota máxima por contingencias comunes que esté establecida, en cada ejercicio económico, en el citado régimen especial.»

*Cinco:* Se da nueva redacción a las letras a) y b) del apartado 1 del artículo 28, que quedan redactadas en los siguientes términos:

«a) Se calificarán y cuantificarán los ingresos y gastos, a excepción de las pérdidas por deterioro, las amortizaciones, las cantidades en concepto de gasto de arrendamiento, cesión o depreciación a que se refieren la letra a) del apartado dos y la letra a) del apartado tres de la regla 5.ª del artículo 27 de esta Norma Foral y las ganancias y pérdidas derivadas de los elementos patrimoniales afectos a la actividad, de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades y en las reglas del artículo anterior.

b) Se calculará la diferencia entre los ingresos y los gastos mencionados en la letra anterior y la cantidad resultante se minorará en un 10 por 100, en concepto de amortizaciones, pérdidas por deterioro y gastos de difícil justificación.»

*Seis:* Se da nueva redacción a la letra e) del artículo 42, que queda redactada en los siguientes términos:

«e) Con ocasión de la dación en pago de la vivienda habitual del deudor o garante del deudor, para la cancelación de deudas garantizadas con hipoteca que recaiga sobre la misma, contraídas con entidades de crédito o con cualquier otra entidad que, de manera profesional, realice la actividad de concesión de préstamos o créditos hipotecarios.

Asimismo estarán exentas las ganancias patrimoniales que se pongan de manifiesto con ocasión de la transmisión de la vivienda en que concurren los requisitos anteriores, realizada en ejecuciones hipotecarias, judiciales o notariales.

Edonola ere, beharrezkoa izango da ohiko etxebizitzaren jabeak beste era bateko ondasun edo eskubide nahikorik ez izatea zor guztia ordaintzeko eta etxebizitza besterentzea saihesteko.»

**Zazpi:** Berridatzi egiten dira 43. artikuluko d) eta e) letrak, eta honela geratzen dira:

«d) Ondasun higiezinaren kostu bidezko eskualdaketen ondoriozkoak, baldin eta ondasunok aurretik egindako kostu gabeko eskuraketa salbuetsi edo tributazio efektiborik gabeko eskuraketa batetik badatoz.

Nolanahi ere, letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko zergadunak frogatzen badu ondasun higiezinaren balioa aparteko inguruabarrengatik aldatu dela edo galera bakar-bakarrik besterentzearen edo eskuraketaren berezko gastuen ondorioa dela.

e) Zergaldian zehar jokoan izandako galeren ondoriozkoak, baldin eta galerok zergaldi berean izandako irabaziak baino handiagoak badira.

Ez dira inola ere konputatuko foru arau honetako hamazortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren jokoetan parte hartzeagatik izandako galerak.»

**Zortzi:** Azken paragrafoa gehitzen zaio 47. artikuluko 1. zenbakiko b) letrari; hau da haren edukia:

«Lan-sozietateetako langileen akzioak edo partaidetzak eskualdatzen direnean, sozietatearen kontratueta, kontratu sozialetan edo sozietatearekiko kontratueta jasotakoa izango da eskualdatze-balioa, betiere kontratueta ezarritako prezioeta egiten bada eskualdaketa.»

**Bederatzi:** Berridatzi egiten da 47. artikuluko 1. zenbakiko d) letrako azken paragrafoa, eta honela geratzen da:

«Aurreko leerroaldeetan xedatutakoa gorabehera, eskualdatzen dena Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduko 79. artikuluan aipatzen diren inbertsio-funts kotizatueta partaidetzak badira eta eskualdaketa balore-burtsan egin bada (erregelamendu hori 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onetsi zuen), eskualdaketa-balioa 1. zenbaki honetako a) letran jasotakoaren arabera kalkulatu da.»

**Hamar:** Berridatzi egiten da 47. artikuluko 1. zenbakiko n) letra, eta honela geratzen da:

«n) 2010eko urriaren 15eko 1282/2010 Errege Dekretuak araututako gerokoen eta aukeren merkatuetan burututako eragiketetan, hau hartuko da ondare-irabazi edo galeratzat: Zergadunak lortutako etekina, baldin eta eragiketa horrek ez badakar zergadunak bere ekonomia-jarduerak gauzatzekoan hitzartutako eragiketa nagusi baten estaldura; izan ere, eragiketa horiek zerga titulu honetako III. kapituluaren ezarritakoaren arabera tributatu dute.»

**Hamaika:** Berridatzi egiten da 48. artikuluko 1. zenbakiko azken paragrafoa, eta honela geratzen da:

«Zenbaki honetan ezarritako araubidea ez da aplikatuko baldin eta, edozein bitartekoren bidez, zergadunaren eskueran jartzen bada inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioen edo partaidetzen itzulketa edo eskualdaketa ondoz lortutako zenbatekoa. Gainera, araubide hori kasu honetan ere ezin izango da aplikatu: Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduko 79. artikuluan ezarritakoaren arabera inbertsio-funts kotizatuak diren inbertsio kolektiboko erakundeen ondarea ordezkatzeko duten partaidetzak edo halako sozietateen akzioak itzultzen, eskualdatzen, harpidetzen edo eskuratzen direnean (erregelamendu hori 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onetsi zuen).»

**Hamabi:** 3. zenbakia gehitzen zaio 49. artikuluari; hau da haren edukia:

«3 Eskualdatu aurretik zergadunaren ohiko etxebizitza zen etxebizitza familiarra eskualdatzearen ondorioz lortutako ondare-irabazietarako ere aplikatuko da goiko zenbakietan xedatutakoa, baldin eta zergadunak etxebizitza horretan bizitzeari utzi badiu ezkontideak banantzeko edo izatezko bikotea desegiteko prozedura batean emandako erabaki judizial bat dela-eta.

En todo caso será necesario que el propietario de la vivienda habitual no disponga de otros bienes o derechos en cuantía suficiente para satisfacer la totalidad de la deuda y evitar la enajenación de la vivienda.»

**Siete:** Se da nueva redacción a las letras d) y e) del artículo 43, que quedan redactadas en los siguientes términos:

«d) Las debidas a transmisiones onerosas de bienes inmuebles que procedan de una adquisición, previa, a título lucrativo, que hubiera estado exenta o que no hubiera sido objeto de tributación efectiva.

No obstante lo dispuesto en esta letra no será de aplicación, cuando el contribuyente pruebe la disminución del valor del bien inmueble por circunstancias excepcionales o cuando la pérdida proceda exclusivamente, de los gastos inherentes a la enajenación o a la adquisición.

e) Las debidas a pérdidas en el juego obtenidas en el período impositivo, que excedan de las ganancias obtenidas en el juego en el mismo período.

No se computarán, en ningún caso, las pérdidas derivadas de la participación en los juegos a los que se refiere la disposición adicional decimoctava de la presente Norma Foral.»

**Ocho:** Se añade un último párrafo a la letra b) del apartado 1 del artículo 47, con el siguiente contenido:

«Cuando se trate de transmisión de acciones o participaciones de clase laboral de Sociedades laborales, el valor de transmisión será el que aparezca en los contratos de sociedad, contratos sociales o con la sociedad, siempre que la transmisión se realice efectivamente a los precios en ellos estipulados.»

**Nueve:** Se da nueva redacción al último párrafo de la letra d) del apartado 1 del artículo 47, que queda redactado en los siguientes términos:

«No obstante lo dispuesto en los párrafos anteriores, en el caso de transmisiones de participaciones en los fondos de inversión cotizados a los que se refiere el artículo 79 del Reglamento de la Ley 35/2003, de 4 de noviembre, de Instituciones de Inversión Colectiva, aprobado por el Real Decreto 1.082/2012, de 13 de julio, realizadas en bolsa de valores, el valor de transmisión se determinará conforme a lo previsto en la letra a) de este apartado 1.»

**Diez:** Se da nueva redacción a la letra n) del apartado 1 del artículo 47, que queda redactada en los siguientes términos:

«n) En las operaciones realizadas en los mercados de futuros y opciones regulados por el Real Decreto 1.282/2010, de 15 de octubre, se considerará ganancia o pérdida patrimonial el rendimiento obtenido cuando la operación no suponga la cobertura de una operación principal concertada en el desarrollo de las actividades económicas realizadas por el contribuyente, en cuyo caso tributarán de acuerdo con lo previsto en el Capítulo III de este Título.»

**Once:** Se da nueva redacción al último párrafo del apartado 1 del artículo 48, que queda redactado en los siguientes términos:

«El régimen previsto en este apartado no resultará de aplicación cuando, por cualquier medio, se ponga a disposición del contribuyente el importe derivado del reembolso o transmisión de las acciones o participaciones de instituciones de inversión colectiva. Tampoco resultará de aplicación el citado régimen cuando la transmisión o reembolso o, en su caso, la suscripción o adquisición tenga por objeto participaciones representativas del patrimonio de instituciones de inversión colectiva a que se refiere este artículo que tengan la consideración de fondos de inversión cotizados o acciones de las sociedades del mismo tipo, conforme a lo previsto en el artículo 79 del Reglamento de la Ley 35/2003, de 4 de noviembre, de Instituciones de Inversión Colectiva, aprobado por el Real Decreto 1082/2012, de 13 de julio.»

**Doce:** Se añade un nuevo apartado 3 al artículo 49, con el siguiente contenido:

«3. Lo dispuesto en los apartados anteriores también será de aplicación para las ganancias patrimoniales obtenidas por la transmisión de la vivienda familiar que hubiera tenido para el contribuyente la consideración de vivienda habitual en un momento anterior a dicha transmisión, cuando dicho contribuyente hubiera dejado de residir en la misma por decisión judicial en un procedimiento de separación matrimonial o extinción de la pareja de hecho.

Baldintza hau bete behar da zenbaki honetan xedatutakoa aplikatu ahal izateko: eskualdatzen den etxebizitza familiarak zergadunaren ezkontide edo izatezko bikotekide ohiaren eta, hala badagokio, haien arteko ondorengoan ohiko etxebizitza izan behar du, arauz ezarritako eran, betiere ondorengoek foru arau honetako 79. artikuluan jasotako kenkarirako eskubidea eragiten badute.»

*Hamahiru.* Berridatzi egiten da 50. artikuluko 4. zenbakiko bigarren paragrafoa, eta honela geratzen da:

«Zehapenaren oinarria hau da: manu hori aplikatuz ateratzen den kuota osoaren zenbatekoa. Zehapenaren oinarria kalkulatzeko ez dira kontuan hartuko egiaztatu nahi den ekitaldian aurreko ekitaldietako zer zenbateko geratzen den konpentsatzeko, deduzitzeko edo aplikatzeko, zenbateko horiek zerga-oinarria edo likidazio-oinarria edo kuota osoa gutxitzeko erabil badaitezke.»

*Hamalau.* Berridatzi egiten da 71. artikuluko 3. zenbakiko hirugarren paragrafoa, eta honela geratzen da:

«Era berean, aurreko artikuluko 3. zenbakian xedatutakoa dela bide egindako ekarpenengatik ezin izan bada murrizketa egin zerga-oinarri orokorrean, zenbaki horretan ezarrita dagoen gehieneko muga gainditzen delako, hurrengo bost ekitaldietan egin ahal izango da zenbateko horiei dagokien murrizketa, betiere murrizketa egiten den ekitaldian bazkide, partaide, mutualista edo titularra den ezkontidea edo izatezko bikotekidea ez badago erretiro egoeran. Ekarpen edo kontribuzioei dagokien murrizketa ezin izan bada egin zerga-oinarri orokorra nahikoa ez delako, hurrengo bost ekitaldietan egin ahal izango da zenbateko horiei dagokien murrizketa, zenbateko horiek gainditu gabe, eta betiere murrizketa egiten den ekitaldian bazkide, partaide, mutualista edo titularra den ezkontidea edo izatezko bikotekidea ez badago erretiro egoeran.»

*Hamabost.* Berridatzi egiten da 82. artikuluko 1. zenbakiko bigarren paragrafoa, eta honela geratzen da:

«Mendetasunaren gradua, desgaitasuna eta aurreko lerroaldean aipatzen diren puntuak hauetan ezarritakoaren arabera neurtuko dira: 1999ko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko I eranskina eta 2011ko otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua; azken errege-dekretu horren bidez, mendetasunen bat duten pertsonen egoera baloratze bidez, mendetasunaren onartu zen, zeina 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak) ezarri zuen.»

*Hamasei.* Berridatzi egiten da 86. artikuluko 4. zenbakia, eta honela geratzen da:

«4. Epaileak erabakita, bakarrik zergadunari ezarri bazaio etxebizitza familiarren alokairua ordaintzeko betebeharra, hark eskubidea izango du autoliquidazioan egiteko artikuluko honetan aipatzen den kenkaria. Betebehar hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzaren autoliquidazioan egingo da, bakoitzari dagokion proportzioan, artikuluko honetako 1. zenbakiko lehenengo lerroaldean ezarritako portzentajea eta muga aplikatuta, salbu eta 1. zenbaki horretako bigarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira, kasu horretan eskubidea izango baitute paragrafo horretan adierazitako portzentajea eta muga aplikatzeko.»

*Hamazazpi.* Berridatzi egiten da 87. artikuluko 7. zenbakia, eta honela geratzen da:

«7. Epaileak erabakita, bakarrik zergadunari ezarri bazaio etxebizitza familiarrenegatik aurreko 1. paragrafoan aipatzen diren dirukopuruetako bat ordaintzeko betebeharra, hark eskubidea izango du autoliquidazioan egiteko artikuluko honetan aipatzen den kenkaria. Betebehar hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzaren autoliquidazioan egingo da, bakoitzari dagokion proportzioan, artikuluko honetako 1. eta 2. zenbakietan ezarritako portzentajeak eta muga aplikatuta, salbu eta 4. zenbakian ezarritako baldintzak betetzen badira, kasu horretan eskubidea izango baitute paragrafo horretan adierazitako portzentajea eta muga aplikatzeko.»

La aplicación de lo dispuesto en este apartado estará condicionada a que la vivienda familiar objeto de transmisión constituya la vivienda habitual del que fuera cónyuge o pareja de hecho del contribuyente y, en su caso, de los descendientes comunes, en los términos que se establezcan reglamentariamente, siempre que éstos den derecho a la deducción contemplada en el artículo 79 de la presente Norma Foral.»

*Trece:* Se da nueva redacción al segundo párrafo del apartado 4 del artículo 50, que queda redactado en los siguientes términos:

«La base de la sanción será la cuantía de la cuota íntegra resultante de la aplicación del mencionado precepto. A los solos efectos de la determinación de la base de la sanción, no se tendrán en cuenta para su cálculo las cantidades pendientes de compensación, deducción o aplicación procedentes de ejercicios anteriores correspondientes al ejercicio objeto de comprobación que, en su caso, pudieran minorar la base imponible, o liquidable o la cuota íntegra.»

*Catorce:* Se da nueva redacción al párrafo tercero del apartado 3 del artículo 71, que queda redactado en los siguientes términos:

«Asimismo, las aportaciones realizadas en virtud de lo dispuesto en el apartado 3 del artículo anterior, que no hayan podido ser objeto de reducción en la base imponible general por exceder del límite previsto en dicho apartado, podrán reducirse en los cinco ejercicios siguientes, siempre que en el ejercicio en que se reduzcan el cónyuge o pareja de hecho que ostente la condición de socio, partícipe, mutualista o titular no se encuentre en situación de jubilación. Cuando las aportaciones o las contribuciones no hayan podido ser objeto de reducción en la base imponible general por insuficiencia de la misma, podrán asimismo ser objeto de reducción en los cinco ejercicios siguientes, sin exceder de las mismas, siempre que en el ejercicio en que se reduzcan el cónyuge o pareja de hecho que ostente la condición de socio, partícipe, mutualista o titular no se encuentre en situación de jubilación.»

*Quince:* Se da nueva redacción al párrafo segundo del apartado 1 del artículo 82, que queda redactado en los siguientes términos:

«El grado de dependencia, discapacidad y los puntos a que se refiere el párrafo anterior se medirán conforme a lo establecido en el Anexo I del Real Decreto 1.971/1999, de 23 de diciembre y en el Real Decreto 174/2011, de 11 de febrero, por el que se aprueba el baremo de valoración de la situación de dependencia establecido por la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.»

*Dieciséis:* Se da nueva redacción al apartado 4 del artículo 86, que queda redactado en los siguientes términos:

«4. En los supuestos en los que, por decisión judicial, se hubiera establecido la obligación de pagar el alquiler de la vivienda familiar a cargo exclusivo del contribuyente, éste tendrá derecho a practicar en su autoliquidación la deducción a que se refiere este artículo. Si tal obligación correspondiera a ambos contribuyentes, la deducción se prorrateará entre ellos y se practicará en la autoliquidación de cada uno en la proporción que corresponda, con el porcentaje y el límite establecidos en el párrafo primero del apartado 1 de este artículo, salvo que cumplan los requisitos establecidos en el párrafo segundo de dicho apartado 1, en cuyo caso tendrán derecho a aplicar el porcentaje y límite indicados en dicho párrafo.»

*Diecisiete:* Se da nueva redacción al apartado 7 del artículo 87, que queda redactado en los siguientes términos:

«7. En los supuestos en los que, por decisión judicial, se hubiera establecido la obligación de satisfacer por la vivienda familiar, alguna de las cantidades a que se refiere el apartado 1 anterior a cargo exclusivo del contribuyente, éste tendrá derecho a practicar en su autoliquidación la deducción a que se refiere este artículo. Si tal obligación correspondiera a ambos contribuyentes, la deducción se prorrateará entre ellos y se practicará en la autoliquidación de cada uno en la proporción que corresponda, con el porcentaje y límite establecidos en los apartados 1 y 2 anteriores, salvo que cumplan los requisitos establecidos en el apartado 4 de este artículo, en cuyo caso tendrán derecho a aplicar el porcentaje y límite indicados en dicho apartado.»

*Hamazortzi:* Berridatzi egiten da 88. artikuluko 1. zenbakia, eta honela geratzen da:

